

Euzkeldunei Euzkeraz

R. 8-3.
(81-92)

IUREKO ELEIZAN

Kistar-irakaskintza zabalkundia

deitxon Abade-bazkunaren

BATZAR NAGOSI EGUNEAN

EGUZKITZA ' TAR ABADIAK

egin eban itzaldija

1914 G. GARAGARILA 1.^o

(BIAR DAN BAIMENAZ).

= Grijelmo-Alaŕgun eta Semien irakolean =

Arbolanĉa, 1.—Bilbao'n



1915

MATEOLA-11R GARREI
1890-1877
BERE LIBURUETATIK

Euskal Biblioteka Labayru



1025958
Erljinoa-31(767.libx.)
Liburuxkak



Exiit qui seminat seminare semen suum. (Ex 5. Luca, cap. VIII v.º 5.º)

Urten zan azi - ereilea bere azija ereitera.

Gure Jaunak, artzain onaren ixena lez aftu eban bereztat irakasle onaren ixena be, ta agindu eutsen bere ikaslaí beste iñori be ez egijoela emon irakasle-ixena, bera bakañik euren irakasle zala-ta. Egiz, artzañak asko dira, baña artzain ona... bat baño ezta, Jesu-Kristo gure Jauna. Auxe da Irakasle nagusija, beste guztjak baño obia; zelan irakatsi biañ dan beste iñok baño obeto dakijana. Irakatsi gura ebazan egijak argiruago azaldu ta efiari obeto adicrazteko, iminten ebazan bafidintasun eta irudirik edefenak; eta irudijen bidez, geyenetan beintzat, iragañi ta azalduten ebazan egirik sakonenak.

Bein esan outsoen: Nire Aita lugiña da ta bere ixenian etofi naz lufera, azi ona ereitera. Jaungoikua lugiña da—diño Agustín deunak—berak egiten daulako gure bijotzetan lugiñak soloetan dagijan zeregiña. Bere itzaren indafagaz ateraten dauz erpetik gure bijotzetako azi txafak; bere itzaren oñzagaz, are-oñzakaz luña lez, askatu, astindu, afoñu ta apuztuten dauz gure bijotzak, ereiten dauz bere agintzaen azijak eta itxaroten dauz maitetasunezko alorta edo frutuak: «extirpat enim verbo suo mala semina de cordibus nostris, aperit cor nostrum tanquam aratro sermonis, plantat semina praeceptorum, expectat fructum pietatis.»

Aita Jaungoikuak, asikalditik bialdu ebazan langiliak bere solora: lege zafeko efkaba ta igafliak ixan ziran Jaunaren soloko langilerik tenenak; baña geruago, batze ugarirjagua egiteko, bialdu eban bere Semia, ta Jaungoiko-Semia, berberak iñoan lez, jatzi zan lufera ta etofi zan bere solora azi on-onak ereitera. Bere solua da luñ zabal guztija, ta erein eban azija Jaunaren itza, zifñeste-azija. *Qui seminat bonum semen est Filius hominis. Ager autem est mundus. Semen est verbum Dei.*

Jaunak, zeruetara igon zanian, bere soluan lan egite-

ko bere ikaslak, langile bafijak itxi ebazan; eurai agin-
du eutsoen erein egijejala gixonen bijotzetan berak
zerutik ekañiriko azi edefak, zifñestiarren azijak. Jesu-Kris-
to'ren ikaslak, Jaunar'en agintzea betetako, zabaldu ziran eñi
guztjetara *Espiritu-Santuaren* etofkude ostian, eta batck
toki baten, bestiak bestian, guztijen arté crein eben zifñes-
tearen azija lufaren egal guztjetan. Auxe zan Jaunak agin-
du eutsoen lana, auxe emon eutsoen zeregiña, ta berauxe
da, anaye maitiak, Jaunak guri, lenengo azi - ereñien
oñordeko garian aoni, ixentau dauskun lana ta esku aftian
imiñi dauskun zeregiña.

Irugarenez gaur batzen gara: auferagoko batzaldi
bijetan beste bazkide agufgafi bik, guztiz egokiro azal-
du euskuen zelan erein bial dogun zifñeste-azija euzkel-
dunen bijotzetan. Lenengotan aftu gendun ikufitzak,
geure arautegijan edonok dakusken lez, geure ikufitzak
diño efdeldunai eñderaz ta pantzetañai pantzeraz lez,
euzkeldunai euzkeraz irakatsi bial yakela zerurako bidia,
euzkeldunen bijotzetan euzkeraz erein bial dogula zifñeste-
ren azija. Eztot ibiñi gura ixan gauza bafi bila: auxe berau-
xe ixango da, ba, nire gaurko itzaldijaren gaya: ume euz-
keldunai zerurako bidia euzkeraz irakastia gauzarik zuzen
eta egokijena dala.

Exiit qui seminat semi-
nare semen suum. Ex S.
Luca, cap. VIII v.º 3.º

Urlen zan azi - ereñlea
bere azija ereñtera.

I

Azijak ereiteko arduria daukanak, lenengo autetsi bial
ixaten dauz azirik onenak, galbaetu, garbitu ta kendu azi
zimel eta txikolak, albora jaurti azi ustel eta txafak. Guk
aonetan zeregiñik eztaukagu; zelako azija erein Jaunak be-
rak esan dauku ta geure ikastaruan ikasi dogu. Baña azi-
ereñleak, azi onak daukazala-ta, ezin cdonun erein eta
bota daike bere azija, bestelan alperiko ereitzea egingo leu-
ke-ta. Azija ereiteko bilatu bial dau luf bigun eta samuñta,
luf astin eta gozua, luf indaftsu ta gantzatsua. Luf gogo-
ñian, zapal, estu ta gogof dagon lufian, lenago exaftu, gol-
detu edo layatu, askatu, astindu ta afortu, bifindu ta austu
barik, zorua eztanak ezin erein daike azirik. Eta oraindik
zoruagua ixango litzake edozein landatan, bedaf txafak

atarau ta kendu barik, lufa gijau, landu ta astindu barik,
azijak ereingo leukezan lugiña. Azijak ereiteko, ba, luf lan-
dua, ondo gijaurikua, luf astin, apatz, gozo ta gantzatsua
bial da.

Zifñesmen-azija ereiteko, lufik bigun, samuñ, astin eta
gozoena umetxuen bijotza da. Gure lenengo gurasoak erein
eben gustijoen bijotzetan azi txafá, ta esakun zañak diñon
lez, azi gaiztua bera softuten da; baña umetxuen bijotzetan
azi dongiak eztira oraindik erne edo beintzat, lora dongiak
eta bedaf gaiztuak eztabe oraindik indafik aftu; augatik
umetxuen bijotza da, zifñesteko azija ereiteko, lufik onena,
astin eta apatzena, samuñ eta gozoena.

Gero be, gixasemia adñean auferatu ta gero be, erein
lei, bai, bere bijotzean zifñesteko azija; baña lan neketsu ta
sail gogofagua ixaten da. Adñagaz, urtiakaz azi dongiak
erneten dira, bedaf gaiztuak, sasi ta arantzak, aftzen dabe
indaña: eurak erpetik ateratia ezta ixaten ain gauza eñeza,
ta ateraten ezpa-dira, zapaldu ta ifoko dabe azi ona. Auxe da
Jaunak berak irakatsi euskuna, esan euskunian ereñleak
azi zati bat arantza añtera jaurti ebala, azi batzuk aran-
tza aftian jausi zirala ta arantzak jagirik, azi ona ifo ebela,
creverunt spine et suffocaverunt e.i.

Aonenbeste gertau daiteke ume gaztetxuen bijotzetan
azi ona erein añen be, gero, euren eñuz, bedaf gaizto, sasi
ta arantzak indaña aftu ba-dagie; baña dana dala, beti ta
beti ixango da obe bedaf dongiak erne baño len, umetxuen
bijotzetan azi ona, zifñesteko azija, arduraz eta al bait on-
doen ereitia, azi txafá baño lenago erne ta jagi dedin azi
ona; ta indaña afturik, zapaldu ta ifo dagijan azi dongetik
erneko dan landara gaiztua. Augatik-edo Doipuruak, Aita
Santuak, oraintsu agindu euskun ardurarik andijenagaz
erein daigula ume gaztetxuen bijotzetan zifñesteko azija ta
gero, lo egon barik, ernai bixi-ta, arduraz zaindu daigula
erein genduan azitik erne zan landarea: umien bijotzetan
sakondo sustrayak bota dauzan zifñestia. Zetan esan be ez-
ta, edono: daki-ta, umien bijotz bigun eta samuñian beste
iñon baño eñezago, ariñago ta gozatsuago erneten dala zi-
ñesmen azija: auxe da, ba, umien bijotza da, batez be, Jesu-
-Kristo gure Jaunak añtatu eban luf ona, astin eta apatza,
batzuetan bateko eun, bestietan bateko irurogei ta gitxiñe-
nez, bateko ogetamañ dakañtzan edo emoten dauzan lufa.
*Alia ceciderunt in terram bonam et dabant fructum, aliud
centessimum, aliud sexagessimum et aliud trigessimum.*

II

Baña luía, berez-bigun eta samuía, apatz eta mamin-tsua ixan afen be, creilearen efuz galdu daiteke azija; ta creiten nekatu zana, batzeko arua eltzen danian, aurkitu daiteke ezertxu baga. Auxe da Jaunak ereilearen ipuin odo irudija imiñi ebanian, irakatsi euskuna. Azi batzuk —iñoan - azatzean barik bide onduan jausi ziran, eta txorijak, erne baño be lenago, jan ebezan *Alia ceciderunt secus viam et venerunt volucres caeli et comederunt ea*. Besté batzuk ari aftian jausi ziran, *inter petrosa*. Aitz aíteko luía ariña, mia ta argala bai, baña gozo-gozua iñaten dalako, an jausi ziran azijak bertatik, beinguan erne ziran, *continuo exorta sunt quia non habebant altitudinem terrae*; baña eguzkijaren beruak efe ebazan eta sustefik ez eukelako, beinguan igafu ziran *et quia non habebant radicem, aruerunt*.

Gure Jaunak ipuin aonegaz irakasten dausku, alpefik lan egin nai ezpa-dogu, ondo begiratu biar' dogula nun eta zelan ereiten dogun ziñesmen azija. Geure efuz azija alpefik galtzia ixango litzake gauzarik negafafjena. Aonela-korik gertau eztakigun, ikusi daigun zeintzuk diran bide onduan eta ari aftian jausten diran azijak. Au be esango dausku Jaunak berak. Ikaslak ez eben, ba, ondo aitu creileatzazko ipuña ta eskatu eutsoen Jaunari azaldu ta adierazo egijoela ta Jaunak erantzun eutsoen: Auxe da ipuñaren azalbena; *Omnis qui audit verbum regni et non intelligit... hic est qui secus viam seminatus est*. Azatzean barik, bide onduan, bideztiak euren oñakin zapaldu daben luíean ereiten dan azija da, entzun bai, baña aitu ta uleítuten eztana. Uleítu ezalako, bañura saftu barik gañetxuan gelditu dalako, otoz-otuan datof arerijo gaizkiña ta ostuten dau bijotzetik erein zan azija, *venit malus et rapit quod seminatum est in corde ejus*. Zorakeri au euzkeldun umetxuakin izenbat bidaí egin ete da! Euzkera baño besterik eztakijan umiak zelan aitu ta uleítu daíke efderaz irakasten yakan kistaí-ikastija, kristiñabaren dotriña? Buruz ikasi afen be, zer diñuan ezpa-daki zelan sartuko da bere bijotz bañura ziñesteko azija? Au da azatzetik urin, bide onduan, agirijan, ifan, edozelan azija ereitia: aonelan erein ezkeru, lenago edo geruago gertauko da gure Jaunak iñuana; *venit malus et rapit quod seminatum est in corde ejus*. Umiak, adikun-

tza-urtietara eltzen daneko, jakin eta uleítu biaf dauz gure ziñeskintzako ziñeskairik garayenak, umiaren adin txikaíak aitu ta uleítu daíkezan besteraño; baña euzkera baño eztakijan umiari efderazko kistaí-ikastija irakasten bayako, buruz ikasi afen, zer diñuan eztau uleítuko. Augafik euzkeldun umiari efderazko ikastija damotzanak, bururik ba'leuko, efdera ikasi añerañoeko epia be emon biaf leuski-jo; baña nor da bera epe ori emoteko? ¿noz dauko umiak gure ziñeskintzako egijak jakin eta uleítzeko biafkuna? ¿Efderaz dakijanian, ala adikuntza-urtietara eltzen danian?

Baña guazan aufera: dakuskun zein dan aitz aíteko luí argal eta ariñean ereiten dan azija. Afi taftian ereiten dan azija da —diño Jaunak— atsegiñez entzun eta pozik aítzen dana, *hic est qui verbum audit et continuo cum gaudio accipit illud*: baña sustrairik eztauko, *non habet in se radicem* eta aldi labuftxu baterako baño ezta ixango, *temporalis est*. Etofiko da, ba, egun iñuna, jagiko da bijotzean ekatxa, griña dongien suak berotuko dautso odola, elduko yako csetsi gogofa, ziñesteari ifi ta baíe egiten dautsenakin batuko da, biaf ba-da... ta beinguan tximuítu ta igafuko da, cretxi baten ain gozatsu erne, ain gordin eta mardul jagi zan landarea, *facta autem tribulatione et persecutione propter verbum, continuo scandalizatur*. ¡Bai ba! gañetxuan gelditu zan azija, etzan saftu bijotz bañura, etzan sakondu bere sustraya ta lenengo gofiñak, lenengo eldekofijak il eta igafuko dau bijotzean ziñesmena.

Euzkeldun umetxuái, efdera pizka bat dakijela-ta, geyagoko barik, efderazko kistaí-ikastija eskura emon eta atxaíteko luí argalean azija erein aenbaten dira. Afi aíteko luí ariñean ereiten dan azijak eztau sakonduten bere sustraya ta eguzkijaren beruak efe ta kiskaldurik, landarea lenengo tximuítu ta gero igafu egiten da. Efdera gitxi baño eztakijen umiai efderaz irakasten ba-yakez gure ziñeskintzako egijak, ezin ondo uleítu daíkiez eta gañetxuan, azalian geldituko dira; ezta bijotz bañura sartuko ziñesmen-azija, ezta sakonduko bere sustraya; ta sustraya sakondu ezik, gexorik txikaíenak, egun bateko zargorijak galduko dau azi aonetatik erne zan landarea. Eta ez esan efderazko ikastija umiak pozik ikasten dabela, euzkerazkua baño atsegiñago yakela. Ba-lite; baña gure Jaunak esan eban ari taíteko luí ariñean ereiten dan azija dala pozez eta atsegiñez aítzen dana; baña sustrairik eztaukana. Ezta, ba, gauzea pozik ikastia; gauzea da ziñesmen-azija

bijotz baŕuraño saŕtzea, sakondo botau dagijan bere efoa ta baŕura bere sustraya.

Umien bijotza samuŕ-samuŕa ixaten da; baña samuŕ eta biguna berez ixan afen, bijotzean be luŕean lez, azatza atera ta gañian barik, azatzean ziñesmen-azija ereingo bada, umiai be bijotzian ikutu biaŕ yake lenengo, esaten yakena ondo uleŕtu eragin eta bijotza zabalduazo, ziñesmen-azija ara baŕura botateko. Baña au loŕtuko ba-da, bijotz samuŕfean be samuŕto landu biaŕ da luŕa ta samuŕto erein biaŕ da azija, ondo begiraturik zein ixango ete dan aonetarako biderik onena. Orain ba; guztijoentzat samuŕena da geure amaren altzuan, bere besaŕtian, bijotz bigun-biguna geunkanian, ikasi gendun izkerea; samuŕena da ugatzagaz batera amaren bulaŕetik, bere laztan aŕtian edan ba-gendu lez, ikasi gendun elia edo berbeta; euzkeldunentzat euzkerea: augaŕtik euzkerea da onena euzkeldun umetxuen bijotzetan bafu-baŕura saŕtzeko ziñesmen-azija.

III

Lugiñak azija ondo erein eta landarak sendo ta mardul etofi afen, gero... inŕotazijak edo aŕijak zuzitu, axeak edo ekatxak gafiŕtik ausi ta apurtu daikez: au soloetan safi dakusku, zoritxafez. Beste aonenbeste gertau daiteke gixonaren bijotzian be. Ondo erein zan ziñesmen-azitik mardul, sendo ta inŕaŕtsu datofen landarea, gixonaren goguan, geure baŕuan, safi-askotan jagiŕen dan ekatxak ausi, apuŕtu ta zuzitu daike; baña efoa baŕura ta sustrayak bijotzaren alde guztijetara zabaldu ba-ziran, ez ixan biŕduŕik, ez galdu itxaropena; landarea baŕiro be jagiko da-ta. Area ta italen ofŕtzak luŕa askatu, astindu, biŕindu ta apuztu daroyen lez, gixonari bere bixitzan jazoten yakazan zoritxaŕen ofŕtzak, maitien baten erijotzeak, norbere gexuak eta beste ez-biaŕak askatu, astindu, apuztu ta samuŕtuten dautse bere bijotza ta orduan, baŕiro erne ta ageŕtzen da iltzat eguan ziñestea, beintzat lenengotan ondo erein ba-zan bere azija, ondo sakondu ba-zan bere sustraya.

Augaŕtik ba, anaye maitiak, lugiñarentzat gauzarik lenena ta ardurarik andijenekua dan lez ereitze ona egitiŕa, guretzat be, Jaunak ziñeskintza-azijak ereiteko autu gai-tuan aonentzat, lenena ta gaŕantzirik andijeneko gauzea da, azi edeŕ au euzkeldunen bijotzetan albait ondoen ereitia. Ondo erein ba-daigu, gero batze ugarija egingo dogu; txar-

to ereiten ba-dogu, ta batzeko aruan ezer barik edo gitxigaz aurkitzen ba-gara, eŕuba ezta ixango luŕarena, ezta ixango euzkeldun bijotzena, ez; eŕuba, biaŕ ba-da, geure-geuria ixango da. Jaunak, ba, lan egiteko ta bere azijak ereiteko, luŕ apatz eta gantzatsua ixentau dausku, solo onera, luŕ samuŕera bialdu gaitu. Zorijonez, euzkeleŕijan oraindik sakon daukaz gure ziñestea bere efoak, zabal eta inŕaŕtsu bere sustrayak.

Gauza onetzaz zerbait gogoratu ta gai aonetan bape sakondu dabenak diñauskue, Jaunaren laguntasuna lenengo, baña aonen uŕengo euzkera zaŕa ixan dala gure ziñestean babesik sendoena ta jagolarik onena: berak aldeztu ta zaindu dala euzkeldunen bijotzetan Jesu-Kistoŕen ziñestea. Orain aŕte ziñestean aizkide ona ixan ba-da, uste ixan daikegu auferantzian be ixango dala. Eztaigun ba, geyago-ko barik bazteŕtu, zaŕa dala ta: ziñestea bera be ezta atzo goxekua, bijak antziñako aizkide zaŕak dira; ta bai-dakixue aizkide zaŕak obeto alkaŕ artu daroela ta edeŕto aituten dirala.

Ziñestean-azijak ereiten uŕiñetatik ibili zan bati entzun neutzan bein: «aona, Euzkeleŕira natoŕenian, begitanduten yat emengo mendijetatik ortze edo zerua uŕago dagola, ta asko ikusita gero, neure adiñak eta bijotzak diñauste egija dala; ziñetsi egidazu, aizkidea; begitandu bakafiŕ egiten yat, biaŕ ba-da, mendi tontoŕetatik zerua uŕago dagola; baña ezta amesa, ezta begijetako lausua, egija baño, emendik ari-mak, zerura igoteko beste toki askotatik baño bide labuŕa-gua daukela». Au zan arek niri esan eustana ta aonek esan naidau, Jaunak ixentau dauskun soluan luŕ ona, luŕ astin, samuŕ eta gantzatsua dagola, luŕ aonetan ziñesmen-azija arin eta gozatsu erneko dala ta; bere landareak, bape zaindu ezkeru, alorta edeŕ eta ugarijak emongo dauzala.

¡Dagigun, ba, anaye maitiak, bakotxak al-doguntxua! aŕtu daigun bene-benetan Jaunak ixentau dauskun lana ta esku-aŕtian imiñi dauskun zeregiña, zeru-bidetik eruateko geure eŕija; aonetan artzain eta ardiŕak, abade ta kriŕak, ereile ta geuk ereindako azija bijotzean aŕtu cbenak, guztijok zeruan oparo ta ugari aŕtu ta batu daiguzan azi aonek dakaŕtzan igali, alorta edo frutu gozo, zorijontsu ta betikuak.

